

**A ponte das palabras. Poesía vasca 1990-2000**  
**/ Hitzezko zubia. Euskal poesia 1990-2000**

**Jon Kortazar (antólogo e coordinador)**

**Formas de citación recomendadas**

**1 | Por referencia a esta publicación electrónica\***

KORTAZAR, JON (ANT. E COORD.) (2011 [2000]). *A ponte das palabras. Poesía vasca 1990-2000 / Hitzezko zubia. Euskal poesia 1990-2000*. Traducción de Miro Villar, Marilar Aleixandre e Eduardo Estévez. Santiago de Compostela: A.C. Amaía, colección Letras de Cal. Reedición en *poesiagalega.org. Arquivo de poéticas contemporáneas na cultura*.  
<<http://www.poesiagalega.org/arquivo/ficha/f/860>>.

**2 | Por referencia á publicación orixinal**

KORTAZAR, JON (ANT. E COORD.) (2000). *A ponte das palabras. Poesía vasca 1990-2000 / Hitzezko zubia. Euskal poesia 1990-2000*. Traducción de Miro Villar, Marilar Aleixandre e Eduardo Estévez. Santiago de Compostela: A.C. Amaía, colección Letras de Cal.

\* Edición dispoñible desde o 29 de maio de 2011 a partir dalgunha das tres vías seguintes: 1) arquivo facilitado polo autor/a ou editor/a, 2) documento existente en repositorios institucionais de acceso público, 3) copia dixitalizada polo equipo de *poesiagalega.org* coas autorizacións pertinentes cando así o demanda a lexislación sobre dereitos de autor. En relación coa primeira alternativa, podería haber diferenzas, xurdidas xa durante o proceso de edición orixinal, entre este texto en pdf e o realmente publicado no seu día. O GAAP e o equipo do proxecto agradecen a colaboración de autores e editores.

© O copyright dos documentos publicados en *poesiagalega.org* pertence aos seus autores e/ou editores orixinais.



A ponte das palabras  
Poesía vasca 1990-2000

Hitzezko zubia  
Euskal poesia 1990-2000









A ponte das palabras  
Poesía vasca 1990-2000

Hitzezko zubia  
Euskal poesia 1990-2000



Este libro publicase co apoio  
do Departamento de Cultura do Goberno Vasco  
e da Universidade do País Vasco

Liburu hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
eta Euskal Herriko Unibertsitatearen  
laguntzari esker argitaratu dugu

A ponte das palabras. Poesía vasca 1990-2000  
Hitzezko zubia. Euskal poesia 1990-2000

© dos autores e autoras dos textos - Testuen idazleena  
Letras de Cal

Coordinador - Koordinatzailea:  
Jon Kortazar

Traducción - Itzultzzaileak:  
Rafa Villar  
Marilar Aleixandre  
Eduardo Estévez

Ilustración da portada - Azalaren irudia:  
Francisco Souto - «Devalo» (serie «Mares interiores»)

Edita - Argitaletxea:  
A. C. Amaía  
Apdo. 142, Compostela  
Galiza, decembro 2000

Imprime - Imprimatzailea:  
Litoprint, S.L. - Pontevedra

ISBN: 84-931169-0-4  
Depósito legal - Legezko gordailua: PO-441/00

**Hitzaurrea**  
(Jon Kortazar)

Liburu honetan aurkezten dugu 1990 eta 2000 urteen artean euren buruak poeta gisa ezagutarazi zituzten egileen bilduma zabala. Aro horretan 38 idazlek argitaratu zuten bere lehen poema liburua edo liburutxoa eta horiengandik 20 aukeratu ditugu gaur egun euskal poesian egiten den estetika formak agertzeko asmoz.

Irizpide bakar horren menpean ahots desberdinaren molde ugaria biltzen saiatu gara, beti ere argitarapenaren neurriak kontuan hartuz, eredu gisa urte batzuk lehenago argitaletxe berean agertu zen dEfecto 2000 Galiziako poesia berriaren antologia izan baikuenen gidari eta arau emaile. Liburu horren ezaugarriek baldintzatu dute gurea, eta poeta bakoitzeko 2 edo 3 poema, gehiagorik ez, sartzeko aukera urria genuen. Bainak testuak urri badira, zabala da izenen aukera.

Deituriko 20 idazleek euren testuak hautatu dituzte, beti

**Limiar**  
(Jon Kortazar)

O que traemos aos lectores neste libro é unha representación ampla da poesía vasca escrita polos autores que publicaron o seu primeiro libro ou plaquette entre 1990 e 2000. Dos trinta e oito autores que se deron a coñecer nese período o responsable da antoloxía escolleu vinte, polo que a mostra se pode considerar significativa, dado que reúne a máis da metade do número de autores que cumplen con esa condición previa e única: terse dado a coñecer no período que delimita a antoloxía.

Quixemos unha selección que dese a coñecer un espectro variado das voces, distintas, que escriben poesía nestes momentos, sempre na medida das posibilidades que ofrecía a publicación, porque, dende o primeiro momento, se tivo moi claro que se pretendía un volume de características similares ao que o precedeu nesta colección: a antoloxía de poesía galega dEfecto 2000. As características da publicación condicionaron,

ere koordinatzailearekin batera etorriaz. Tarteko itzulpenak begiztatu dituzte, gehienek behintzat, orain arte egin den garaiko poesiari egin zaion hurbilketarik handiena eta zehatzena ongi eratzeko asmoz. Aipatzeko da zenbait poetek nahiago izan dutela testu argitaragabeak lehen aldiz ezagutzera eman, eta berez bilduma bada atzerantz egiten den begirada, baina bada, neurri berean, etorkizunera zabalik uzten den leihoa, bai testu berrien agerpenagatik, eta baita ere bere lana hasten ari diren poeten izenengatik.

Sarrerarik gabe doa bilduma, eta ez da berri zabalik eskaintzen poeten bizitzaz eta lanaz, testu poetikoa bere biluztasunean agertzea eta irakurria izatea nahi genuen eta. Aipatu dira zenbait zehaztasun: hamarkadan agerturiko poesi liburuen zerrenda, adibidez, eta zenbait eranskin, sorkuntza poetikoaren nondik norakoa adierazteko asmoz. Hemen ere Galiziako antologiak gidaritza egin zigun.

Bilduma hau Galizian agertzea paradoxa bat baino ez da, poesia maite dugunok egina, gogo onez sinesten dugulako, bere hizkuntzak jartzen dionetik aparte, poesiak ez duela

xa que logo, o número de textos de cada poeta: pensamos en dous ou tres poemas por autor, co fin de dar cabida a unha xenerosa representación.

Os vinte poetas seleccionaron os seus textos, de acordo sempre co responsable da antoloxía. E revisaron as traduccíons intermedias. A verdade é que é esta a primeira tentativa de achegamento rigoroso e total á produción poética vasca entre 1990 e 2000. Debe indicarse que os poetas escollerón algúns textos inéditos, de xeito que esta antoloxía é unha ollada ao pasado, mais tamén unha firme aposta de futuro, pola novidade dos textos e pola presencia de escritores que comezan agora a súa andadura poética.

Pretendemos asemade ofrecer o texto na súa nudeza, por iso se ofrece moi pouca información sobre os poetas, para centrar o foco na lectura dos poemas. Mais incluíronse distintas referencias: unha lista de libros publicados na década e algúns cadros que servisen para se facer unha idea da evolución da creación poética no período proposto. Aquí a antoloxía galega serviu como guía.

Que a publicación vexa a luz en Galiza non é máis que un

mugarik, eta hizkuntzarena berean pasabidea ere badelauste dugulako.

Horrela sortu dugu A ponte das palabras. Hitzezko zubia, literatura desberdin biren arteko elkarritzeta saio gisa. Argitalpenaren arduradunak eskerrak eman nahi dizkie abentura honetan parte hartu duten guztiei.

paradoxo realizado polos que amamos a poesía de xeito que pensamos que non ten máis fronteiras cá súa propia lingua e que esta se pode atravesar.

Así xorde esta Ponte de palabras, Hitzezko zubia, como un xeito de comunicación e entendemento entre dúas literaturas. O responsable da publicación debe estender o seu agradecemento a todas as persoas que tomaron parte nesta aventura.



Pako Aristi  
(Urrestilla - Guipuzkoa, 1963)

### Gidoi txiki bat

Hendaiatik Santiagorako trenean mutil bat irakurtzen ari da.

Liburua: Toxos e flores.

Egilea: Manuel Rivas.

Neska bat sartu da eta aurrean eseri zaio.

Neskak ez dio begirik kentzen.

Mutila aspaldi katramilatu da esaldi batean.

Ezin aurrera egin.

Sugeak txoriari begiratzen dionean bezala.

Neskaren etena:

-Yo le conozco, ¿sabe usted?

-¿A mi? (mutilak harrituta)

-No, a Rivas.

-¿Qué pena!

-¿Porque usted no le conoce?

-No, porque usted no me conoce a mi.  
(eten txiki bat)

Si no podríamos hablar.

-¡Ya estamos hablando!

-¿Dejo a Rivas, entonces?

-Sí. ¡Charlemos! (mutilak liburua uzten duen bitartean)

Así podré contarle que conocí a un lector suyo. ¡Soy su mujer!

-¿A sí? (mutilak, dezepzionaturik)

Creo que prefiero quedarme con Rivas.

(mutilak liburua hartzen du berriro, neska haserretuz)

-Creo que yo también!

(Eta paisaiari begira gelditzen da neskaren begirada indargetua)

## Un pequeno guión

No tren de Hendaia a Santiago un mozo vai lendo.  
O libro: Toxos e flores.  
O escritor: Manuel Rivas.  
Entra unha moza e senta diante del.  
A moza non lle quita ollo.  
O mozo hai tempo que se ensarillou nunha frase.  
Non pode avanzar.  
Coma cando a serpe mira para o paxaro\*.

Interrupción da moza:  
-Eu coñézoo, ¿sabe?  
-¡A min? (O mozo sorpréndese)  
-Non, a Rivas.  
-¿Que mágoa!  
-¿Porque vostede non o coñece?  
-Non, porque vostede non me coñece a min.  
    (unha pequena pausa)  
Senón poderíamos falar.  
-¡Xa estamos a falar!  
-¿Deixo a Rivas, logo?  
-Si, ¡Falemos! (mentres, o mozo deixa o libro)  
Así poderei contarlle que coñecín a un lector seu. ¡Son a súa muller!  
-¿Hai si? (o mozo decepcionado)  
Creo que prefiro quedar con Rivas.  
(o mozo colle de volta o libro, incomodando a moza)  
-¿Creo que eu tamén!  
(A mirada irada da moza pousa na paisaxe)

---

\*Título dun libro de Bernardo Atxaga.

### Gaua, hotza, negua

Esnatu eta  
tren huts batean nago.  
Jomugara aspaldi iritsia,  
bagoi luzea jendez hustu da.  
Ilunak hoztu egin du  
kristalen kolorea.  
Geltokian ere inor ez,  
bakardadearen estuasunetik ihesi denak.  
Ahuldua, ezer egiteko kemenik gabe,  
ikara sentitzen dut,  
tristurak itotzen nau.  
Nola iritsi naiz  
izarren distira izoztuaren pean  
hedatu den  
desanparo gordin honetara?  
Nola barneratu zait  
txakur basatien  
izu deslaia  
bihotz zuloraino?  
Tren huts batean sentitzen naiz, maite,  
esnatu eta ondoan ez zauzkadanean.

### Noite, frío, inverno

Acordo  
e estou nun tren baleiro.  
Chegou hai tempo ao seu destino,  
e o vagón está totalmente baleiro.  
A noite arrefriou  
a cor dos cristais.  
Na estación tampouco non hai ninguén,  
**todos foxen do abafo da soidade.**  
Débil, sen folgos para nada,  
estarrezo,  
e a tristura acórame.  
¿Como cheguei  
a este desamparo último  
que se estende  
baixo o fulgor xeado das estrelas?  
¿Como interioricei  
o alporizado espanto  
dos cans salvaxes  
ata o cerne do meu corazón?  
Síntome como un tren baleiro, amor,  
cando acordo  
e non te teño á miña beira.

## Industri birmoldaketa

Untziolak itxi egin zituzten  
eta bizitza osoa  
itsasuntzien eraikuntzan  
enplegatutako arotz zaharrak  
enkarguzko lan ezberdinetan  
hasi behar izan zuen.

Alabaina,  
batelen formakoak  
ateratzen zitzaitzkiion gurdiak,  
txalupen okerdurakoak hilkutxak,  
izkina borobilekoak ziren  
haren altzariak,  
kurbarekiko maitasuna aitortuko  
luketen olerkiak bailiren.  
Itsasoak gidatzen zuen  
bere eskuen indarra,  
azaleko zimurrek osatzen zituzten

uhinen bidez.

## Reconversión industrial

Pecharon os estaleiros,  
e o vello carpinteiro,  
despois de toda unha vida  
dedicada á construción de barcos,  
tivo que aceptar  
as encargas máis diversas.  
Sen embargo,  
os seus carros tiñan  
a curvatura dos bateis,  
os seus cadaleitos eran como dornas,  
cantos arredondados  
acariñaban os seus mobles,  
como se fosen poemas a declarar  
o seu amor polas curvas.  
Era o mar o que guiaba  
a forza das súas mans,  
a través  
das ondas  
que formaban  
as engurras da súa pel.



**Aurelia Arkotxa**  
(Baigorri - Iparralde, 1953)

**Mare magnum fine**

(Etymologiae, Sevillako Isidoro, 1472)

urrunean untzia  
estaltzen  
itsas hegiaren hutsa

**Terra incognita**

(Novus atlas absolutissimus, Jan Janssonius, 1658)

arrain itsasoko haundiaren  
begi geldia  
guri so  
iduzkitan

**Mare magnum fine**

(Etymologiae, Isidoro de Sevilla, 1472)

ao lonxe o barco  
desaparece  
queda o vougo das marxes

Terra incognita

(Novus atlas absolutissimus, Jan Janssonius, 1658)

o ollo quedo  
da enorme balea  
fitanos  
ao sol

**Oceanus septentrionalis**

(Noua totius orbis, Joan Blaeu, 1648)

zinhoazen hedoiak  
zeramatzan urak  
hormamendi geldiak

**Americæ pars magis cognita**

(Theodoro de Bry, 1592)

La Martre goizeko sei t'erdiaik  
uda bururatzen ari  
argi dorre gorria itsas hegí muturrean  
ahate beltz papo argiak zirristaka ur gainetik  
urrunean balea ilun baten zurrupta zuria

Oceanus septentrionalis  
(Noua totius orbis, Joan Blaeu, 1648)

as nubes que se van  
as augas que levan  
os icebergs quedos

**Americæ pars magis cognita**  
(Theodoro de Bry, 1592)

La Martre seis e media da mañá  
o verán esfíña  
o faro vermello no extremo da costa  
patos negros de ventre branco rozan a auga  
ao lonxe o chorro branco dunha balea escura

**Americæ septentrionalis**  
(Jansson-Hondius, 1636)

uhinen joan jin  
legar mingain  
egur zurituak hondartzan  
oihan beltz  
itsas zori zuriaren hegaztiak haizean  
uhinen jin joan  
Godbout agorriaren 23an eguerditan

**Occidens**

Juan de La Cosa Colombo Hojeda eta Rodrigo de Bastidaren kide itsasoaz  
bertzalderako bidaietan pilotu trebe kartagile bikain  
amets egin ahala lurraldeak deskubrituz eta deskubritu ahala  
asto larruzko karta miresgarrian mundu berriak amestuz zabilan

**Americæ septentrionalis**  
(Jansson-Hondius, 1636)

van e veñen as ondas  
unha lingua de area  
pólas branqueadas na praia  
a escura fraga  
as ás quedas da gaivota branca no vento  
veñen e van as ondas  
Godbout o 23 de agosto ás doce do mediodía

**Occidens**

Juan de la Cosa compañeiro de Colón Hojeda e Rodrigo de Bastida piloto  
hábil nas viaxes de alén mar gran cartógrafo que ía soñando e descubrindo  
terrás e que a medida que as ía descubrindo  
ía soñando novos mundos nun marabilloso mapa de pel de asno



**Rikardo Arregi Diaz de Heredia**  
(Gasteiz - Araba, 1958)

## 66 lerro hiri sitiatuau

GASTEIZKO PLAZA eta kaleak lasai zeharkatzean,  
egunero bezala lanera edo lagunengana,  
bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
hau bera han egitea  
arriskutsua dela oso egun askotan,  
eta etxegainei begiratuz kalkulatzen dut,  
begia hotz, dardar gogoa,  
zein aukeratuko luukeen franko-tiratzaleak,  
nondik etorriko ene burua  
lore beltz odolezko bilakatuko duen bala,  
susmagarria baita plaza zabalegi hori. Kale hura.  
Etxe handiz inguraturiko parkea.

Entzun dut Sarajevoko parkeetan  
zuhaitzik ez dagoela jadanik,  
bitztanleek moztu baitituzte etxeak berotzeko,  
eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
ez dudala nik etxeen sua egiteko leku egokirik.  
Gainera, ene kalea eraikuntza ofizialez beterik dago,  
eta gobernu-bulegoak garrantzizkoak omen direnez  
gerra garaian,  
bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
kalea istilugune bihurtu eta suntsiturik egon daitekeela agian  
Sarajevoko ene etxea.

Nola antolatzen da ni naizena Sarajevo?  
Lanera doa oraindik adibidez? Ala  
ohitura arrunt horiek guztiak aspaldian desagertu ziren?  
Eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
ikastetxeak itxita egongo direla ziur asko,  
nirea, gainera, trenbidearen bestaldean dagoela,  
geltokitik hurbil,  
eta trenbideak eta geltokiak kontrolatu beharreko gauzak omen  
gerra garaian.

[direla

## 66 versos na cidade sitiada

Cando atraveso sen presa as prazas e mais as rúas de Gasteiz para ir, como cada día, ao traballo ou a ver os meus amigos, penso e desacóugame que camiñar por alí pode resultar perigoso e mentres miro para os tellados das casas calculo, o ollar quedo e o ánimo convulso, que lugar elixirá o francotirador, por onde chegará a bala, a miña cabeza convertida nunha flor de sangue, porque esa praza tan ampla resulta sospitosa. Esa rúa. Ese parque rodeado de altos edificios.

Sentín dicir que nos parques de Saraievo non quedan árbores, porque os seus habitantes os cortaron para quentaren as casas, e penso e desacóugame que non teño na casa un lugar apropiado para facer lume. A miña rúa está rodeada de edificios oficiais, e xa que as oficinas gobernamentais son obxectivos de guerra, penso e desacóugame que a miña rúa se convertese xa en zona de conflicto e pode que xa estea destruída a miña casa en Saraievo.

¿Como dá feito o meu eu que está en Saraievo?  
¿Vai aínda traballar? ¿Ou se cadra  
hai tempo que eses costumes, tan diarios, desapareceron?  
E penso e desacóugame  
que seguramente as escolas estean pechadas,  
e que a miña, ademais, está á outra banda dos camiños de ferro,  
e que os ferrocarrís e mailas estacións son lugares que se deben  
en tempo de guerra.

[preto da estación,  
controlar]

Luzaro iguriki iristen ez diren eskutitzak  
eta berriak ezin izkiriatu.

Nola egiten ditut erosketak Sarajevo?  
Kilo patatak hamar marko balio duenetik  
orduak ematen ditut batuketak eta kenketak egiten  
baina emaitzak gose dira beti.  
Eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
gosea, hotza, izua, ilarak, zori txarra  
ohitura ezin arruntegiak direla  
gerra garaian.

Banaturik dago jadanik hiria,  
barne mugak zauri dira  
eta zauri horien odola ez da metafora,  
trenbideaz haraindi etsai lagunak,  
zubiaz honaindian lagun etsaiak.  
Niri egokitu zaidan egoerari nola egokitu natzaio ni?  
Eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
ama sartaldean bizi dela eta ni berriz erdialdean  
eta bi auzoak, anaiarena ere bai, urrunago egon daitezkeela  
gerra garaian,  
eta banaketa horiek ezustekoak direla eta ankerrak,  
gau hartan zure etxeana afaldu nuelako nago hemen.

Ez da falta Gasteizko inguruetan  
leku egokirik artilleria kokatzeko,  
Zaldiaren edo Gasteizko mendiak  
ez dira Ilidza mendia bezain ikusgarriak izango,  
baina handik jaurtiriko bonbek lan ona egin dezakete.  
Eta gero errepideetara oinez irten, pardeltxoak bizkarrean,  
hiritar hirigabeak,  
udan bada sargori, neguan bada izotz,  
inora ez doazen bideetan galdurik,  
inon ez dagoen babesaren bila;  
bake-itunak sinatu arte bizirik irautea da kontua.  
Ez dezala deabruak 6 bat idatzi.

Agardar moito tempo cartas que non chegan  
e non poder escribir outras novas.

*¿Como fago a compra en Sarajevo?*  
Desde que un quilo de patacas custa dez marcos  
boto horas a facer sumas e restas  
mais os resultados sempre teñen fame.  
E penso e desacóugame  
que a fame, o frío, o terror, as cousas, o mal fado  
son costumes demasiado vulgares  
en tempo de guerra.

A cidade está xa dividida.  
Son feridas as fronteiras interiores  
e ese sangue non é unha metáfora,  
máis alá da vía os inimigos amigos  
a esta banda da ponte os amigos inimigos.  
*¿De que xeito me adaptei ao que me tocou en sorte?*  
E penso e desacóugame  
que miña nai vive ao oeste e eu no centro  
e que os dous barrios, e tamén o de meu irmán, se afastan  
en tempo de guerra,  
e que as divisiós son imprevistas, e crueis,  
se estou aquí é porque esta noite quedei a cear na túa casa.

Non faltan arredor de Gasteiz  
lugares apropiados para situar a artillería,  
se cadra Zaldiarán, se cadra os montes de Gasteiz  
non son tan espectaculares como o Illidza,  
pero as bombas fan o mesmo traballo.  
E más tarde botarse a andar camiño adiante, coa equipaxe ao lombo,  
ciudadáns sen cidade,  
se é verán baixo o calmizo, se é inverno sobre o xeo,  
perdidos nos camiños que non levan a ningures,  
procurando un abeiro que non existe en ningún lugar.  
A cuestión é seguir vivo ata que se asinen os acordos de paz.  
E que non escriba outro 6 o demo.

### Amodiozko poema

Sorginak eta aztiak,  
Guzti-guztiak bilatu ditut.  
Sineskeria orotan  
Naiz aldatua. Amodioa  
Eskuratzeko asmatu diren  
Keinu, jolas eta hitzez  
Artatsu baliatu naiz.  
Herrian duzun tradizioa,  
Madagaskar urrunetik  
Datorrena, liburu zaharrek  
Ilun gordetzen dutena,  
Dena hatu dut kontuan  
Zuk jarritako mugen gainetik  
Ene eskuak hega daitezen.  
Zure gorputzak edonon  
Utzitako hondakinak  
Bildu ditut. Azkazal zatiak,  
Erortzen zaizkizun iletxoak,  
Izerdiz blaituriko atorrak,  
Zure fluido antzuak.  
Gero lore bildu berriekin  
Egosí ditut egunsentian,  
Harrizko aldareetan erre  
Artizarra agertzean,  
Zilarbiziz busti ilargitan,  
Zure teilatu azpian  
Sekretuki lurperatu.  
Etxearen inguruan  
Zazpi aldiz zazpi bira  
Egin dut sorginen araoak  
Ahoan, alkimisten formulak  
Errepikatu ditut arretaz.  
Eta dena une egokian  
Ongi ezagutzen baitut  
Izarrek, zu jaiotzean,

### Poema de amor

Procurei en todos,  
Meigas e bruxos.  
Son un experto en calquera  
Superstición. Servinme, atinado,  
De todos os acenos, os xogos, as palabras  
Que se inventaron para conseguir  
O amor.  
Da tradición que gardas na túa terra,  
Da que vén da lonxe  
Madagascar, da que agochan  
Escura, os vellos libros,  
Tíveno todo en conta  
Para que as miñas mans voen  
Por riba dos atrancos que ti pos.  
Recollín os restos  
Que vas deixando  
En calquera lugar. Os anacos de unlla,  
Os pelos que che caen,  
As camisas molladas de suor,  
Os teus fluídos estériles.  
Máis tarde cocinos á alba  
Con flores acabadas de cortar,  
Queimeinos nos altares de pedra  
Ao nacer Venus,  
Molleinos de prata ao luar,  
Soterreinos en secreto  
Baixo do teu tellado.  
Dei  
Sete voltas á túa casa  
Mentres recitaba esconxuros  
De meiga, e repetín co coidado  
As fórmulas dos alquimistas.  
E todo no momento oportuno,  
Xa que coñeo  
O sitio que ocupaban as estrelas

Atsegin zuten egongunea  
Palenkeko horoskopoetan.

Baina deusek ez dit balio.  
Zure arrazoiak, ilustraziokume hori, indargabetu dizkit sorginkeriak.

Genetikaren baitan jarri dut  
Orain ene esperantza,  
Eta berriro hasi naiz  
Zure hondakinak biltzen.  
Azkazal zatiak, iletxoak,  
Zure fluido antzuak.  
Jakintzalariekin batera  
Feronomak aztertuko ditut,  
Aminoazidoak, entzimak,  
Zure molekula hotzak.  
Laster prestatuko dugu  
Edaberik arrazoizkoena  
Zuk jarritako mugen gainetik  
Ene eskuak hega daitezen.

O día do teu nacemento,  
Nos horóscopos de Palenque.

Mais todo resultou inútil.  
A túa razón, filla da ilustración, deixou sen azos os meus esconxuros.

Agora depositei a miña fe  
Na xenética,  
E comecei  
A recoller os teus restos.  
Anacos de unlla, pelos,  
Os teus fluídos estériles.  
Examinarei xunto a un sabio  
As feromonas,  
Os aminoácidos, as encimas,  
As túas frías moléculas.  
Axiña preparei a beberaxe  
Máis racional  
Para que as miñas mans voen  
Por riba dos teus atrancos.



**Gari Berasaluzé**  
(Zarautz - Gipuzkoa, 1975)

**h**erri honetan  
badakigu zergatik egiten den negar  
baina ez zertarako  
bat gehiago edota bat gutxiago  
esan behar den ez dakigun bezala.

Neste país  
sabemos polo que se chora  
mais non para que  
como tampouco sabemos se hai que decir  
un máis ou un menos.

**b**erriro galdetuta ere euskaldunak garela idatziko dugu bilbao edo vitoria bezalako hirietan negar eginez malkoz izekitzen ditugu egunen apunteak eta balkoietako lorontzi gorrietaan ahazten bezperako sua eta hautsa aberriaren odola delakoan itsasbeheran erakutsiko balute nola deklinatzen den libertatea iparralderantz bidali beharrean poetak tristura biltzera udazkenak olatuak apurtzen ditu gure bihotzetan eta liburuetan ez dute kalerik intifada hauen ametsek hemen isiltasuna saltzen delako esperantzaren prezioan baina distantzia zaharren bidaiariak gauez entzun daitezke ezpatak hartuta itsasoak zeharkatzen esaterako berriro torturatuta ere euskaldunak garela idatziko dugu.

**A**índa que nos pregunten outra volta escribiremos que somos  
[vascos]  
a chorar en cidades como gasteiz ou bilbo  
prendemos con bágoas os apuntamentos dos días  
e esquecemos nos testos vermellos dos balcóns  
o lume e mais a pólvora do serán anterior  
como se fose sangue da patria  
se na baixamar aprendesen como se declina a liberdade  
no canto de condenar os poetas ao norte a colleitaren tristura  
o outono rompe ondas nos nosos corazóns  
e nos libros non hai lugar para os soños destas intifadas  
porque aquí o silencio se vende a prezo de esperanza  
pero á noite pódense sentir os viaxeiros de distancias antigas  
cruzando océanos coas espadas en alto  
áínda que nos torturen outra volta escribiremos que somos  
[vascos.]

*Q*zken guda dantzan  
aizkorak elkartu zituztenen seme-alabak gara  
atzoko eta gaurko borroka abestien artean  
haietako hustutako sagardo botilak ganbaran bilatu  
eta berriro kaleak utan ikustera etorriak

beldurtu egiten ginen arratsak desagertzen zirenean  
eta edoski behar genituen bularrak eramatzen zituztenean  
eta negar egiten genuen  
malko bakoitziraun ahal izateko taupada bat balitz bezala  
ohe hutsen geografian errepiteen senideak bihurtu ginen  
hemen gauak lau ertz dituela idazten zutenen bila

baina oraindik ez genuen ikasi  
irailaren begietan krespoiak jartzen  
gernika moskun entzun zitekeen abestia zen  
eta monbar izeneko hotel baten izara gorriean  
idatzi zituzten guri handik portu batzuetara  
itsasoak emandako aizkorak.

Somos herdeiros  
daqueles que uniron as súas machadas na derradeira danza de  
[guerra  
buscamos no faiado  
as botellas de sidra que baleiraron aqueles  
e volvemos  
para ver arder as rúas  
  
asustabámonos cando desaparecía os seráns  
e cando levaban os peitos que tiñan que nos amamantar  
e chorabamos  
como se cada bágoa fose un latexo para podermos sobrevivir  
nesa xeografía de camas baleiras  
convertémonos en familiares das estradas  
procurando os que escribían que aquí  
a noite ten catro esquinas  
  
pero aínda non aprenderamos  
a pór crespóns nos ollos de setembro  
gernika era unha cantiga que se oía en moscova  
e nas sabas vermellas dun hotel chamado monbar  
escribiron as machadas que uns portos más alá  
nos entregou o mar.



**Harkaitz Cano**

(Donostia - Gipuzkoa, 1975)

### Kezko seinaleak

Nondik ote dator anitzua kea?  
Oherik ez dagoenetik sukaldeetako labeetan  
egiten dar hiri honetan amodioa  
Leiho itxitik merkantziak sartuz behelainoarekin  
zure ahotsa apartatu nuen kafea hoztu ez zedin  
Gurpilak karkabaka trenetik  
harrien baitatik ateratzen zen isiltasuna  
egunak bere alanbikeak zabaldu ahala  
Aurpegi errea zekarten goizeko lehen biztanleek  
harlauza gainetan lerraturik  
kexu ziren antzokiak bezain hutsik botilak  
jendea presaka zebilen gauari norbaitek  
semaforo guztiak ostu balizkio lez  
Biharamuna maingu baten arrastoa zen  
bizitza den espaloi elurrez ezkutatuan

Nondik ote dator anitzua kea?  
Oherik ez dagoenetik sukaldeetako labeetan  
egiten da hiri honetan amodioa.

### Sinais de fume

¿De onde virá multiplicado o fume?  
Desde que levaron as camas da cidade  
faise o amor nos fornos das cociñas  
ao tempo que entran os trens de mercadorías  
por fiestras clausuradas  
Afastei a túa voz para que non arrefriase o café  
O silencio saía por entre as pedras  
mentres o día inauguraba os seus alambiques  
Os primeiros habitantes da mañá  
traían en bolsas de papel as súas faces queimadas  
enfiadas nas beirarrúas laiábanse  
tan baleiras como os teatros as botellas  
a xente bulía como se alguén  
lle roubara á noite todos os seus semáforos  
O amencer era a pegada dun coxo  
na beirarrúa cuberta de neve que é a vida

¿De onde virá multiplicado tanto fume?  
Soamente se sabe que  
desde que levaron as camas da cidade  
se fai o amor nos fornos das cociñas.

### Itsaso komunista

Hilabete bazen itsasoratu ginela.  
Bizarra luze genuen eta alkondarak zarratututa.  
Ezpainetara lapututako elur maluta idorrak bailiran  
trostan ainguratzzen ziren gatz aleak  
eztarri zuloetara.  
Ezerekin estropozorik ez egiteko  
arretaz nabigatzen genuen,  
hanka puntetan ibiltzen ginen olatuen gainean  
ur zuloz inguratuta geunden hartan.  
Eguntenti batez, esnatzean  
nork bere postutik  
itsasoa gorriz tindaturik bistatu genuen harrituta.  
Isiltasunak bere iritzia azaldu ostean  
zuhurki mintzatu zen gabiera igota  
lau horizonteak eskura zituen:

-Ez, ez da zuekuste duzuena.  
Sotoetako ardoa aspaldi ahitu zitzaignun.  
Kontinenteak dira  
odolusten ari direnak.

### O mar comunista

Xa un mes que levantamos áncoras.  
Barbas medradas e camisas ásperas de salitre  
rotas e cheas de suor afogábannos.  
O sal que circaba as nosas pupilas  
era ventosa de brétema turbadora para a nosa visión.  
O mar tíñanos cada vez más atrincheirados.  
Navegabamos no bicos dos pés  
para non bater cos furados e escaleiras da auga.  
Un amencer, nada máis acordar,  
abraiados e incrédulos vimos o mar tinxido de vermello.  
Durante dous minutos opinou o silencio.  
Logo, o máis asisado de nós,  
ergueu a man en viseira  
e ollando os catro horizontes, dixo:

—Non, non é o que vós credes.  
Hai séculos que bebemos o contido dos pipotes.  
Son os continentes  
os que se desangran.

## Momentua

Honela funtzionatzen dugu:  
saihetseen arteko barrunbeak harramaskatu norbaiti  
eman dezakeen onenaren hoditeria urratu arte.  
Eta gero ihes egin, urduri lehortuz  
itukinak eskuetan utzi dizkigun arrastoak.

Momentura hurbiltzen garela dirudien  
une eskukada bat.

Geronen azala ere ez zaigu  
hezurretarra atxikitzen  
ez da errukitzen, ez du gutaz ezer jakin nahi.

Momentuaz hitz eginen dugu gero, zerbait bagenekei bezala.

Momentura hurbiltzen garela dirudien  
une eskukada bat.  
Ukazio samur batzu, eztiki erranak.  
Begietako eratzunetan ere, enbor ebakietan bezala  
adina irakur zitekeela erakutsi zizun  
osaba hura.

Agian ez zen izan emakume batekin ohean  
agian ez zen izan harrotasunez bete zintuen  
bihozkada bat bete zenekoa  
momentura gehien hurbildu zinen unea.  
Orain oroitzentzu: zure osaba  
txahal hilberriaren burua aizkoraz ebakitzentzu.  
Zureak ireki zenituen txahalaren begi hiletako eratzunak  
azkar zenbatzeko  
eta orduan nekez zenekien arren  
hura izango zen zure bizitza osoan momentura  
gehien hurbilduko zinen unea.

Zuk bost urte zenituen  
hotz zen kanpoan

## O intre

Así é como funcionamos:  
rabuñamos os ocos entre as costelas do outro  
ata esgazar os caneiros do mellor que pode dar.  
Despois fuximos, secando nerviosamente  
as pegadas que as pingueiras deixaron nas nosas mans.

Unha presa de vivencias  
nas que parecemos achegarnos ao Intre.

Nin sequera a nosa pel se adhire xa aos ósos  
non se apiada, nada quiere saber  
de nós.

Despois falaremos do intre, como se soubesemos algo.

Unha presa de vivencias  
nas que parecemos achegarnos ao Intre.  
Unha manchea de negativas, ditas con dozura.  
Aquel teu tío que che aprendeu  
que tamén nos aneis dos ollos podía lerse  
a idade como nos troncos cortados.

Tal vez non foi na cama cunha muller  
nin cando se cumpliu aquel presentimento e te sentiches tan orgulloso  
o día en que más te achegaches ao Intre.  
Lémbralo agora: teu tío afiando a machada  
teu tío cortando a cabeza da xuvanca recién sacrificada.  
Abriches os teus para contar axiña os aneis  
nos ollos da xuvanca morta  
e, ainda que daquela non podías sabelo,  
aquel ía ser o día en que más te achegases na túa vida  
ao Intre.

Tiñas cinco anos  
íá frío fóra  
e a xuvanca era máis nova ca ti.

eta txahala zu baino gazteagoa zen.  
Aste askotan zure amari galduetu izan zenion  
ea hildakoen begietan azkena ikusi zuten hura  
mantentzen ote zen luzaro.

Txahala piezatan txikitu eta hirira eraman zuten.  
Eta txahalarekin, momentua.

Durante semanas preguntácheslle a túa nai  
se se mantén durante moito tempo na retina dos mortos  
o último que chegaron a ver.

Despezaron a xuvanca e levárona á cidade.  
E coa xuvanca, o intre.



**Isabel Diaz**  
(Laudio - Araba, 1966)

### Zure irria

Beldur naiz  
Begiak ireki eta ez ote zaitudan berriro aurkituko  
Nire ondoan irrifarretsu.

Honetan egunak hogeita lau zementuzko ordu  
Orduak hirurogei hormigoi armatuzko minutu  
Zeinetan irri horrek badakien zabaltzen hamaika zirrikitu.

Beldur naiz  
Begiak ireki eta ez ote zaitudan berriro aurkituko  
Nire ondoan irrifarretsu.

Ametsetan baina esna  
Ostadarraren koloreak ene dastamenean  
Zoratzen naute eguzki epelak eta aire freskuak.

Begiak itxita margotuz noa zure ezpainak  
Udaberriaz blai zure bularrk  
Arratsean mendi-brisa zure sexua  
Ozpelean bazter hezeetako basamarrubiak  
Txiribitaz jositako muino berdeak  
Etxe atarian aingerulore usaina

Eta zure irria.

Erreparatzen diodanean irrifarretsu eni begira  
Zin dagizut zohartzen dituela  
Barrunbe hotz-ilunak gozogabeak.

Zure irria  
Irri horrek, maitia,  
Zohargia dakarkit aldeotara.

### O teu sorriso

Dáme medo  
Abrir os ollos e non verte outra volta  
Cabo de min, sorrindo.

Neste lugar os días duran vintecatro horas de cemento  
E as horas, sesenta minutos de formigón armado  
Que o teu sorriso, cando entra, esnaquiza en mil anacos.

Dáme medo  
Abrir os ollos e non verte outra volta  
Cabo de min, co teu sorriso.

Soñando, pero esperto  
Levo as cores do arco nos meus beizos  
E os raios do sol morno, e o aire fresco.

Cos ollos pechos vou debuxándoche os labios  
A primavera enchoupa os teus seos  
A brisa do serán sopra no teu sexo  
Amorodos dos recantos más húmidos do avesedo  
Outeiros verdes ateigados de margaridas  
Recendo de alelís nos soportais da casa

E o teu sorriso.

Cando reparo nel  
Xúroche que escorrenta  
As tebras frías e acedas.

O teu sorriso  
O teu sorriso, amor,  
Transpórtame a unha lúa que está lonxe.

**Zin egidazu, Dalí, zin egidazu!**

*Els trossos de pa expressant  
el sentiment de l'amor*

Oli sobre tela (1940) - Dalí

Ogi urdindu puska bi mahai bazter batean  
Eta berunezko gortina kristalen atzean

Hilotzak eta harriak uraren gainean  
Eta eskailera estuak pendiz batean

Ez dago lurrik ez zerurik  
Ez dago begiak pausatzeko deusik

Egidazu hau guztiarekin oihal haundi bat  
Donibane bezperan beharko didazu eman  
Eta zin egidazu sekulako amesgaiztotzar hau  
San Juanetako suak betiko irentsiko duela.

## ¡Xúramo, Dalí, xúramo!

*Els trossos de pa expressant  
el sentiment de l'amor*

Oli sobre tela (1940) - Dali

Dúas codias de pan reseso no extremo dunha mesa  
E unha cortina de chumbo tralos cristais da fiestra

cadáveres e pedras aboian sobre a auga  
escaleiras estreitas clausuran a costa

non hai ceo non hai terra  
non hai ónde pouzar os ollos

faime un grande lenzo con todo isto  
tes que mo dar a véspera do San Xoán  
e xúrame que este horrible pesadelo  
morrerá para sempre consumido  
entre as bocas abertas do lume de San Xoán.



**Igor Estankona**  
(Artea - Bizkaia, 1977)

### Gaur ez dago lainorik

Gaur ez dago lainorik  
eta gaua dator garbi  
gutxitan ikusten da horrela  
bildurra ematen du ia  
zerbaitek eztanda egitea izan daiteke irtenbide bat  
bake honetan gereizpeak altxatzen dira  
eta aurpegia ukitzen didate  
inoiz gulakorik ikusi gabeak balira bezala  
eta ez zenuke lorik egingo  
zertan pentsatzan ari naizen jakingo bazenu  
astiro noa zugana hankabakar noa zugana  
denboran atzera egin nahi dut  
esku fosil batzuekin ukitzeko  
zure jaio gabeko azala  
gure oraina ukatuko nuke zelan hiltzen zaren ikustearren  
zelai bat bezain zabal daukat eskua  
aurrera jotzen dute handik zure ametsek  
nireak hemen daude talka itxaroten  
esaидаzu ze asmorekin datorren zure barre urduria  
esaидаzu egingo didazun zulo horretan  
geratzeko asmorik duzun.

### Hoxe non hai brétema

Hoxe non hai brétema  
e a noite vén clara  
como en poucas ocasións  
case dá medo vela  
podería ser unha solución que algo estoupase  
nesta paz érguense sombras  
e tócanme a cara  
como se nunca viran alguén coma nós  
e non durmirías  
se soubeses o que penso  
vou a modo cara a ti, vou cara a ti coxeando  
gustaríame volver atrás no tempo  
e tocar unhas mans fósiles  
a túa pel áinda non nacida  
tocaría o noso presente para ver como morres  
teño a man tan aberta como un eido  
os teus soños van máis alá  
os meus agardan aquí o seu límite  
dime que intención trae o teu inquieto interior  
dime se queres ficar  
nesa tumba que cavarás en míñ.

### Ozen barrurantz

Behar bada ez orain  
behar bada ez aurten  
behar bada zati batean ez  
baina egunen batean belauniko jarriko zarete  
ni nagoen bezala  
eta ez duzue inoren bildurrik izango  
ez zarete inork derrigorturik egongo  
eta gardena izango da zuon bihotza  
behar bada ez orain  
behar bada ez aurten  
behar bada zati batean ez  
baina egunen batean negar egingo duzue  
nik bezala  
zoriontsuak izango zarete barka gaitzazue!  
oihukatzen duzuen bitartean  
nik egiten dudan bezain ozen barrurantza  
behar bada ez orain  
behar bada ez aurten  
baina bai:  
egunen batean barka gaitzazue! oihukatuko duzue  
eta agian ez zaitutze barkatuko.

### Berro para dentro

Se cadra non hoxe  
se cadra tampouco non este ano  
pode que pase un tempo  
pero un día  
poñerédesvos de xeonllos, como  
estou agora  
e non temeredes a ninguén  
ninguén vos obrigará a nada  
e será inocente o voso corazón  
se cadra non hoxe,  
se cadra tampouco non este ano  
pode que pase un tempo  
pero un día choraredes  
coma min  
seredes felices mentres berrades  
¡perdoádenos!  
como berro eu para adentro  
se cadra non hoxe  
se cadra tampouco non este ano  
mais acontecerá  
en día berraredes  
e se cadra non seredes perdoados.



**Martin Etxeberria**  
(Zarautz - Gipuzkoa, 1974)

### Begiekin pentsatzen

Begiekin pentsatzen dudana  
idatzi nahiko nuke beti.

Azalaren hitzak erabili.

Maitaleen artean ere,  
berak esaten omen baititu  
egi handienak.

Itzalen berri jakin nahiko nuke,  
eta gizonen aurpegietaz.

Zenbakien idazkera eduki nahiko nuke  
eta izenak eta adjektiboak nahasi,  
koloreak ez bereizteko  
ahalmena ikasi.

Bideak hitz egiten duen hizkuntzan  
hitz egin nahiko nuke,  
hurbil bezain urrutি.

Poemak,  
ferekak eta ukabilak bezala  
izan daitezen.

Gizakiak  
asmatzen dituzten poemak bezala  
izan daitezen.

### Pensando cos ollos

Gustaríame escribir sempre  
o que penso cos ollos.  
Utilizar as palabras da pel  
porque ela fala  
entre os amantes  
coas verdades máis atinadas.

Gustaríame saber das sombras  
e dos rostros dos homes.  
Gustaríame posuír a escrita dos números  
e mesturar os nomes e mais os adjetivos,  
aprender a ciencia  
que non distingue as cores.

Gustaríame falar a lingua  
dos camiños,  
dos próximos e dos afastados.

Para que os meus poemas  
sexan  
como as caricias e os puños.  
Para que  
sexan  
como os poemas que compoñen as persoas.

### Ilea jaten

Larraitzen etxean egin nuen lo.  
Gau luzea izan zen,  
zarata eta kez bustia,  
eta esnatu nintzenean  
oraindik nekatua sentitzen nintzen.  
Larraitzen ipurdiak, baina,  
irribarre egiten zidan  
ohearen beste aldetik,  
eta muxu eman nion bizkarrean  
komunera jaiki aurretik.

Eguna eguzkiz beteta zegoen,  
ikaragarria,  
lehertu beharrean.  
Kresal usainez, haur txikiez,  
kroketez, egunkariz  
eta asmo onez gainezka.

Iturriko urarekin  
ahoko parranda zaporea  
ezkutatu nuen  
eta ohera itzuli nintzen.

Gerritik heldu  
eta bere ilea dastatu nuen.  
Denbora jatea bezala zen.  
Arratsaldeak eta goizak  
eta gauak  
eta txorakeria horiek guztiak.  
Ez zuten benetako garrantzirik.

Indarrez besarkatu nuen  
eta esnatu egin zen.  
Gasolina koloreko bere begiekin  
begiratu ninduen.

**Probei o sabor do seu pelo**

Durmín na casa de Larraitz.  
Foi unha noite moi longa,  
mollada de ruído e fume  
e cando acordei,  
sentíame aínda canso.  
Mais as nádegas de Larraitz  
sorríanme  
dende o outro lado da cama  
e biquei as súas costas antes de ir ao baño.

O día amencia con sol,  
radiante,  
a piques de estoupar.  
Recendía a mar, a nenos,  
a croquetas, a xornais,  
a boas intencións.

Disfracei  
o sabor a troula  
coa agua da billa  
e volvíng para a cama.

Rodeei o seu van  
e probei o sabor do seu pelo.  
Era como comer o tempo.  
As tardes, as mañás,  
as noites  
e todas esas cousas.  
Non tiñan importancia.

Aperteina con forza.  
E acordou  
cos seus ollos cor de gasolina.  
“Bos días”, díxenlle.  
Non contestou.

Egunon, esan nion.  
Berak ez zuen ezer erantzun.

Eta han geratu ginen goiz guztia,  
aterkiak eguraldi oneko egunetan bezala,  
ondo bilduta.  
Eta ez ginen kresal usainaz,  
haur txikiez, kroketez,  
egunkariez eta asmo onez  
gogoratu ere egin.

E ficamos alí toda a mañá  
como os paraugas nos días con sol,  
arreconchegadiños.

E esquecémonos  
do recendo do mar,  
dos nenos, das croquetas,  
dos xornais e das boas intencións.



**Mirari Garcia de Cortazar**  
(Donostia - Gipuzkoa, 1969)

**E**zabatzen doa  
Gorderik nuen luraren  
Perfil zorrotza,  
Ahoan mingainean dantzaz  
Ardoak mahatsa  
Ezabatzen duen moduan.  
Gurma batean bildurik geratu zait  
Esparrua  
Artilezko zentzutan galdua.  
Begirada erbesteratuak  
Ene begiek hautatuak:  
Urrunak,  
Ilunak,  
Lizunak.  
Gure bideko hautsak  
Hatsak astinduak,  
Hatsak zutituak,  
Hatsak suntsituak.

Vaise esluíndo  
O perfil afiado que gardaba  
Da terra  
Como coa danza da lingua  
Desfai o viño a uva.  
O cerco queda envurullado  
Na brétema,  
Perdido en sensacions laúdas.  
Miradas exiliadas as escolleitas  
Polos meus ollos:  
Distantes,  
Escuras  
Obscenas  
As inmundicias do noso camiño  
Abaneadas polo alento  
Alzadas polo alento  
Devastadas polo alento.

**M**arinel zaharraren izerdi gazia  
Eta ezpainen zirkituetan igeri,  
Enbatek besoak nagi,  
Begi urruneratuetan  
Hurbila etsi.  
Hezur hezetuetan  
Giza zurrularen etenak,  
Eskama itsatsiak  
Ene itsaso zauriak.

**N**as abertas dos meus beizos nada  
A suor salgada do vello mariñeiro,  
Os vendavais en ferruxan os meus brazos,  
A proximidade desiste nos ollos desviados.  
As pausas do home vicioso  
Nos ósos en choupadados,  
Escamas adheridas  
As miñas mancaduras do mar.

**B**apatean,  
Kale hustuetako hormei  
Sosegua oihuka zerien.  
Zakur baten zaunkaren oihartzunak  
Urruneko arratsean  
Isiltasuna lehertu nahi zuen.  
Neoizko taupada soilik  
Nikatzen zuten bizia.  
Ez zebilen beste inor.  
Ez zegoen beste inor.  
Gure biluztasunak bete zituen  
Gauaren begi beltz zelatiak  
Ohe gainean zabaldu  
Eta hustu ginenean.

D

e socato

Ás paredes das calzadas vacuas  
Esváráballes o acougo a berros.  
O eco do ouveo dun can  
Na tarde distante  
Desexaba rebentar o silencio.  
Só os latexos de néón  
Acenaban á vida.  
Ninguén máis marchaba.  
Ninguén máis existía.  
A nosa nudez acugulou  
Os ollos ciumentos da noite  
Cando sobre a cama  
nos abrimos e nos baleíramos.



**Karlos Linazasoro**  
(Tolosa - Gipuzkoa, 1962)

### Lo betierekoa

Ekialdera bidaiatu nahi izan genuen  
Alfonbra majikoak zamalkatuz, etxean ezer esan gabe,  
Inkognitoz eta gure gaztaroko ametsak betetzeko asmoz;  
Edo Istanbulera edo Drakula Kontearen gaztelura  
Edo Bohemiako kristal negartien betseinetara.  
Edonora. Baino Aliziaren Herrialde Miresgarrian  
Galde genuen brujula eta iparra eta geure aztarnen  
Azken zantzua eta han, artean non geunden ezjakin,  
Ivanhoe ikusi genuen eta Robin Hood, eta King Kong  
Eta Isolda, eta Grant Kapitaina eta Loten emaztea.  
Zuk maite ninduzula esan zenidan Cinemascope  
Aurpegiaz eta nik, Mustag bat alokatuz, Hegoaidera  
Eraman zintudan gerritik oratz.  
Gau hartan Peter Pan izan ginen Cortazarren  
Bestiarioan. Hamabiak jo zizkgun bungaloweko  
Erloju propagandazkoak. Gero, ohitura ez galtzearren,  
Möet Chandon eta pasadobleen artean, bizitzari  
Errepaso eman genion keinu goibelez. Edan egin  
Nituen zure dalmata begiak izarapean eta, gauaren  
Azken genozidioa balitz, geure gorputz hordiak  
Sidneyranzko trenean ipini genituen, Decameronetik  
Plajiaturiko intzirak eginez. Zure bularretan  
Gauetako heroek borrokatzen ziren altxorraren giltza  
Edo talisman prezziatura eskuratzearen, eta nik,  
Zingaro baten abileziaz ezpainak horzkatzen nizkizun,  
Egun hartan, boltxebikeen tiraniatik libratu zintudan  
Egunean, horzkatu moduan. Kontua ordaindu eta  
Hipodromorantz jo genuen. Han, ohiturari jarraituz,  
Azken mohikanoa izan ginen, eta iada  
Ez ginen sekula iratzarriko.  
Grimm anaiek sehaskatzen gintuzten.

### Soño eterno

Quixemos viaxar a Oriente  
Cabalgando sobre alfombras máxicas, sen dicir nada na casa,  
De incógnito e coa intención de cumplir os nosos  
Soños de infancia;  
Ou a Istambul ou ao castelo do Conde Drácula  
Ou ás chorosas pupilas do cristal de Bohemia.  
A calquera lugar. Mais no Marabiloso País de Alicia  
Perdemos o compás e o Norte e o último trazo  
Dos nosos vestixios e ali, ignorando onde estabamos, vimos  
A Ivanhoe e a Robin Hood, e a King Kong  
A Isolda, e ao Capitán Grant e á muller de Lot.  
Ti dixéchesme con rostro Cinemascope que me  
Querías, e eu aluguei un Munstang e leveite  
Cara ao Sur colléndote polo van.  
Aquela noite fomos Peter Pan no Bestiario  
De Cortázar. O reloxo de propaganda do bungalow  
Deu as doce. Despois, por non perder o costume,  
Entre Möet Chandon e pasodobres, demos repaso á  
Vida con xesto amoucado. Bebín os teus ollos dálmata  
Baixo as sabas e, coma se fose o noso último xenocidio  
Da noite, puxemos os nosos corpos no tren  
De Sidney, con arfadas plaxiadas do  
Decamerón. No teu peito loitaban os heroes  
Da noite por recuperaren a chave do tesouro  
Ou o prezado talismán, e eu taniscábache  
Os beizos coa habilidade dun zíngaro, do mesmo  
Xeito que chos biquei o día aquel que  
Te liberei da tiranía dos bolxeviques. Paguei  
A conta e camiñamos cara ao Hipódromo. Alá,  
Segundo o acordado, fomos o último mohicano,  
E xa non acordamos xamais.  
Os irmáns Grimm arroláronnos.

## XVIII

Egun batez ijitoak etorri ziren gure bailara ezkutura  
Bere karromato zarpail eta zakur tropelaz.

Irria ekarri ziguten, eta urrezko bitxiak, eta gosea,  
Eta turuta handi bat, eta amets goxoak egiteko esperantza.

Eta arbola ezezagunak ere ekarri zizkiguten, eta tximuak,  
Eta lorito hitzontzi bat, eta komikoen neke sendaezina.

Larru-bitxitan zetozentz asko, oinutsik eta eskuak bere oihartzun,  
Eta guk geure jakirik ederrenak prestatu genizkien ixilik.

Eta esan ziguten beste mundu batzuk ere bazeudela hemendik urrun,  
Eta beste udazken batzuk, eta han ere maitatzen zela hemen bezala.

Eta trikuek ere, adibidez, beren abrigoa kentzen zutela amodioa  
[egiteko,  
Eta han ere hitz ederrak esaten zitzaizkiela neskatxa politei.

Gauak plazako bonbila gorriak piztu zituen orduan, eta ijitoek  
Tramankulu guztiak bildu zituzten, eta andreak, eta umeak.

Eta ipurtargiek hain dotore seinalatzen zuten bideari ekin zioten  
Berriro, eta zakurrek tristuraz begiratu ziguten pasatzean.

## XVIII

Un día chegaron os ciganos á nosa aldea escondida  
Cos seus vellos carromatos e a súa infinitade de cans.

Trouxéronnos o riso, e as xoias de ouro, e a fame,  
E unha grande corneta, e a esperanza de facer doces soños.

E tamén nos trouxeron árbores estrañas, e moniños,  
E un papagaio lingoreteiro, e o cansazo incurable dos cómicos.

Moitos viñan espidos, descalzos, e coas mans cheas de ecos,  
E nós preparámosllles en silencio a nosa mellor comida.

E dixéronnos que existían outros mundos lonxe de aquí,  
E outros outonos, e que alí se amaba como se ama aquí.

E que os ourizos, por exemplo, tamén quitaban o abrigo para facer  
[o amor,  
E que alí tamén lles dicían cousas bonitas ás rapazas preciosas.

A praza acendeu entón as súas lámpadas vermelhas, e os ciganos  
Recollerón todos os seus trebellos, e as súas mulleres, e os seus  
[fillos.

E colleron polo camiño que tan elegantemente lles amosaban os  
[vagalumes,  
